

herrera-bidebieta

«Haurrei musika ipuia bailitzan irakasten diet»


Laura Diez Deprado Donostian jaiotako hogeituro urteko neska dugu. Laura Herreran bizi da aspaldidanik eta txikitatik, musikak sortzen duen magia txunditurik, musika ikasketak egin nahi izan zituen. Donostiako C.E.M, Ikasketa Musikalen Ikastetxean, egin ditu bere ikasketak.

Laurak Herrerako Auzotegin 4-8 urte bitarteko haurrei irakasten die musika bi taldetan banatuta, txikien taldea 4 eta 5 urtekoak eta helduen taldea 6-8 urte bitartekoak.

Nolaz hasi zinen Herrerako haurrei musika irakasten?

Auzotegiak beste gaiei buruzko ikastaro gehiago bazituela banekien eta musika beste modu batean haurrei hurbiltzea egoki iruditu zitzaidan. Batez ere kontutan izanik kontserbatorioan dauden ikastaro programak txikiei aspergarriak iruditzen zaizkiela.

Zeintzuk dira kurtsua antolatzean finkatu



Haurrek jolas moduan hartzen dituzte Laurak ematen dizkien musika ikastaroak. Horrela, musika gaitasunak lantzeaz gain, imajinazioa eta nortasuna bera ere aberasten dira.

dituzun helburuak?

Nire ustez oso garrantzitsua da musika eskuratu daitekeen zerbait dela kontsideratzea eta nire ikasleei adierazi nahi diet ikastaro hauekin, beraiek ere, lortu dezaketela orain bere idolo diren horiek dutena. Askok miresten dituzte Urtz, Su Ta Gar... bezalako taldeak. Hala ere, saiatzen naiz bestelako erritmoak ere erakusten, musika klasikoarekin hasi eta beste guztiak.

Nolako erantzuna eman dute haurrek?

Ni saiatzen naiz andereñoa bezala ez agertzen

eta horrek ere beraiengan eragina izan du. Ni lagun bezala ikusten nautenez, haurren egiazko erreakzioak ezagut ditzaket. Bestalde, haurrek musika ipuin bat bailitzan ulertzen dute: pentagrama notak bizi diren etxea da eta bertan, goiko, beheko, ezkerreko nahiz eskubiko bizilagunekin jokatzeko dute, bizilagun bakoitzak izen propioa duela (do, re, mi...).

Haurrak gurasoek bultzatuta hasten dira musika ikasten ala bere kabuz?

Txikien taldean, ziur

nago guztiak gurasoek izen emanda hasten direla ikastaroan, helduxeagoak berriz, borondatez etortzen dira eta hori lan funtzionamenduan ere nabari da.

Zein garrantzi dauka musikak haurren hezikuntzan?

Musika ez da bakarrik kultura edo ezagupena, giza trebetasunak garatzeko ere modu egokia da, musika irakatsiz imajinazioa landu eta talde lan ugari egiten baita.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)

ARGAZKIA: XIMON

Intxaurreondo

Komertziante Elkarteak eratu da

Aurrutxipin etxe bat otatu dute. Etxe hau asfaltatik hutsa zegoen eta zken urteetan, drogazalek ibiltzen ziren bertan. Irain hondakinak besterik ez dira gelditzen.

Lukatu dituzte Zubiurre pasealekuko lanak. Bi aste inguru aritu dira urtean trafikoa oztopatuz. Iala ere, estaltzeko gaian ez dira oso fin ibili. Bizikleta edo motorrean asatuz gero, gora-behera atzuk somatuko dituzue.

Arategi pasealeku maieran dagoen eskultura berriak itxura desberdina hartzen du egunez edo auez. Gauez, azpikaldean arrikako zenbait fokok argizatzen dute, bere hizko kolorea pixka bat ldatuz.

Joan den astean aurrutxipin bitakoa baieztatu zen bilera informatzaile batean: auzoko komertzianteen elkarteak eratu dago. Hiper Eroskia erakitzearen aurka gogor lan egitea da talde honen helburu nagusi eta garrantzitsuenetakoa, beren esanetan, «komertzio txikiaren hondamena izan daiteke eta».


Bestalde, hiritarren segurtasuna eskatzen

dute. Lapurretak daude ere, komertzianteei ez bait zaie kasurik egiten. Elkartearen sorrerarekin, kexak hargandana joango liriteke eta elkarteak berak talde bezala egingo lituzke kexak. Azkenik, garbitasunari buruz aritu ziren. Komertzioaren inguruan bereziki, higiena falta somatzen dute eta horren aurrean neurriak hartzea eskatzen dute. Guztiaren gaintetik,

komertzianteei elkarterik egotea oso garrantzitsua ikusten dute.

Komertzianteei ugari azaldu ziren elkartearen parte hartzeko prest eta bileran bertan sortu zuten Zuzendaritza Batzordea. Haserako tramiteak finkatu ondoren, beste auzoekin bat egitea da beren helburua.

NAGORE IRASTORZA (TFNOA.: 285749)



Monseko pista estaltzen ari dira

Irailan onartutako Monseko polikiroldegia- ren proiektua dagoeneko martxan dago. Lehen fasean, polikiroldegian saskibaloia, eskubaloia eta teniserako zelaiak sartuko dira, orain arteko aldagelak mantenduz. Zortzi hilabeteko epea dute lan hau egiteko. Momentu honetan, hau da egoera. Argazkia: Roxali Fernandez.



GUREA, KALITATEA!

Madrid pasealekua, 4
Tfnoak: (943) 46 80 76 / 47 15 20